



HITZARMENAREN

ADDENDA

GATIKAKO UDALAREN

ETA

**BILBAO-BIZKAIA UR
PARTZUERGOAREN ARTEKOA**

**EDATEKO URA BANATZEKO BIGARREN
MAILAKO TOKI SAREA KUDEATZEA,
MANTENTZEA, USTIATZEA ETA
BIJARTZEA**

ADENDA AL

CONVENIO

ENTRE

AYUNTAMIENTO DE GATIKA

Y

**CONSORCIO DE AGUAS
BILBAO-BIZKAIA**

**PARA LA GESTIÓN,
MANTENIMIENTO, EXPLOTACIÓN Y
REPOSICIÓN DE LA RED
SECUNDARIA LOCAL DE
DISTRIBUCIÓN DE AGUA POTABLE**



Bilbon, 2022ko azaroaren 8an

En Bilbao, a 8 de noviembre de 2022

BILDUTA

ONINTZE AMEZAGA BILBAO andrea, GATIKAKo UDALaren Alkatea.

KEPA ODRIUZOLA AZULA jauna, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKo Presidentea.

REUNIDOS

D^a ONINTZE AMEZAGA BILBAO, Alcaldesa del AYUNTAMIENTO DE GATIKA.

D. KEPA ODRIUZOLA AZULA, Presidente del CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA.

PARTE-HARTZAILEAK

Lehena GATIKAKo UDALaren Alkate-Presidentea den heinean, eta bigarrena BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKo Presidentea den heinean, eta erakunde hori ordezkatzuz.

Parte-hartzaile biek, duten ordezkaritza erabilita, elkarri Hitzarmena izenpetzeko lege-ahalmen nahikoa aitortzen diote eta horretarako,

INTERVIENEN

El primero de ellos, en su calidad de Alcaldesa-Presidenta del AYUNTAMIENTO DE GATIKA y el segundo como Presidente del CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA y en representación de la citada Entidad.

Ambos intervinientes, en la representación que actúan, se reconocen mutuamente capacidad legal suficiente para celebrar este Convenio y a tal efecto,

ADIERAZTEN DUTE

EXPONEN

LEHENA.

GATIKAKo Udalaren eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren GATIKAn 2006ko urriaren 5ean sinatu zen hitzarmenaren arabera, Partzuergoak bigarren mailako sarea birjartzeko proiektu bat erredaktatzeko konpromisoa hartu zuen; bertan, Udal horrek bere gain hartu beharko zituen inbertsioak eta urte anitzeko inbertsio programak islatuko ziren. Plan horren xedea da berrogei urte baino gehiago dituzten bigarren mailako udal tutuak birjartzea, baldin eta haien egoerak eta materialek hala justifikatzen badute; epeari dagokionez, gehenez bost urtekoa izango zela ezarri zen hasieran, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Batzar Nagusiak 2000ko azaroaren 23an hartutako erabakiaren bidez; erabaki hori hartzeaz batera, Batzarrak Zuzendaritza Batzordearen esku utzi zuen, espresuki, hitzarmen hori onartzeko eta formalizatzeko zeregina.

Epea Batzar Nagusiak 2000ko azaroaren 23ko batzarrean ezarritakoa (5 urte) baino handiagoa denez, aipatutako gobernu batzordeak Eranskina onartu behar du eta onartu zen 2020ko irailaren 22an.

BIGARRENA.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak GATIKAKo udalerriko birjartze plan hori egin zuenean, Udalera bidali zuen, berak legeak agintzen duen moduan onartu zezan.

PRIMERO.

Que en virtud del Convenio suscrito con fecha 5 de octubre de 2006 entre el Ayuntamiento de GATIKA y el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, este último adquirió el compromiso de redactar un proyecto de reposición de la red secundaria donde quedarán reflejadas las inversiones y programas plurianuales de inversión que debía asumir el citado Ayuntamiento. La duración de dicho plan, cuyo planteamiento está orientado a la reposición de tuberías secundarias municipales con antigüedad a cuarenta años, o siempre que su estado y materiales así lo justifiquen, se fijó inicialmente por un período máximo de cinco años, mediante acuerdo de la Asamblea General del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia de fecha 23 de noviembre de 2000, la cual, al mismo tiempo delegó expresamente en el Comité Directivo la aprobación y formalización del correspondiente convenio.

El plazo de 10 años es superior al establecido con carácter general por la Asamblea General en la sesión de 23 de noviembre de 2000 (5 años). La Addenda fue sometida a la aprobación y aprobada por dicho órgano de gobierno el 22 de septiembre de 2020.

SEGUNDO.

Una vez elaborado por el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia el meritado plan de reposición del municipio de GATIKA, el mismo fue remitido a su Ayuntamiento a los efectos de su aprobación reglamentaria.



HIRUGARRENA.

Adierazitakoaren arabera, bidezkoa da dokumentu hau sinatzea, GATIKako Udalak eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak 2006ko urriaren 5ean sinatu zuten hitzarmenari gehitzeko, Addenda gisa, Hitzarmena balioztatzeko eta perfektionatzeko xedez, ondoren ageri diren klausulen arabera

TERCERO.

De acuerdo con lo expuesto, procede suscribir el presente documento, al efecto que pase a formar parte del convenio suscrito entre el Ayuntamiento de GATIKA y el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia el 5 de octubre de 2006, como Addenda para su validación y perfeccionamiento, con arreglo a las siguientes

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENENGOA.

GATIKAKoko Udalak bere gain hartuko ditu inbertsioak eta urte anitzeko inbertsio programak, Addenda honi erantsitako LABURPEN KOADROAN ETA PLANOETAN adierazten den bezala. Koadro horretan agertzen dira udalerriko eremu hidraulikoei banan-banan dagozkien proiektuak, eta baita proiektu horiek gauzatzeko aurreikusitako epeak ere; haien dimentsio tekniko-ekonomikoa, berriz, GATIKako Udalean entregatutako birjartze planaren azken bertsioan ageri dena da, eta bat dator koadro horretan agertzen denarekin. Hornikuntzarako obren proiektuei dagokienez, plana entregatu denetik edo Addenda hau onartzen denetik aurrera GATIKako UDALAK gauzatu dituen edo sustatu nahi dituen proiektuek plan horretan ezarritako dimentsio orokorra izan behar dute eta hor ageri diren epeetan egon behar dira gauzatuta.

BIGARRENA.

Udalak ez baditu hasten urte-epe bakoitzari dagozkion birjartze proiektuetan aurreikusitako obrak, birjarri gabeko azpiegituren ustiapenak eragindako mantentze-gastuak hartuko ditu bere gain, azpiegitura horiek erabat birjarri arte.

HIRUGARRENA.

Plana onartu eta gero, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak xehetasunez erredaktatuko ditu eraikuntza proiektuak, lizitazioari begira, GATIKako Udalarekin 2006ko urriaren 5ean sinatutako Hitzarmenean ezarritakoa betez.

PRIMERA.

El Ayuntamiento de GATIKA asumirá las inversiones y programas plurianuales de inversión conforme queda reflejado en el CUADRO RESUMEN Y PLANOS que se adjuntan a la presente Addenda. En dicho cuadro aparecen los diferentes proyectos que corresponden a cada zona hidráulica del municipio y los años previstos para su ejecución, siendo el alcance técnico-económico de los mismos el que se recoge en la versión última del plan de reposición entregado en el Ayuntamiento de GATIKA, y que coincide con el recogido en el aludido cuadro. Los proyectos en obras de abastecimiento que el Ayuntamiento de GATIKA haya podido ejecutar desde la fecha de entrega del plan o los que pretenda promover desde la fecha de aprobación de la presente Addenda deben tener el alcance total y estar ejecutados en las fechas que se recogen en dicho plan.

SEGUNDA.

Si el Ayuntamiento no acometiera las obras contempladas en los proyectos de reposición correspondientes a cada anualidad, se hará cargo de los gastos de mantenimiento derivados de la explotación de las infraestructuras sin reponer, hasta la completa reposición de las mismas.

TERCERA.

El Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, una vez aprobado el plan, redactará con detalle suficiente los proyectos de construcción para su licitación, conforme a lo establecido en el convenio suscrito con fecha 5 de octubre de 2006 con el Ayuntamiento de GATIKA.



Horretarako, hitzarmenaren garapenaren 13. Klausulan ("Lanen Antolaketa eta Plangintza") ezarritakorekin bat etorriz, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa bere aginpidea erabiliko du birjartze plana ezartzeaz arduratzeko, hau da, plana lizitatzeko, gauzatzeko, haren obra zuzentzeko eta zertifikatzeko ardura hartuko du. Dena dela, horrek ez du esan nahi Udala bera ezin izan daitekeenik obren sustatzailea; hori horrela izanez gero, Partzuergotik ezarritako jarraibideak eta espezifikazioak bete beharko ditu Udalak. Azken kasu horretan, Partzuergoak parte-hartze aktiboa izango du proiektuaren hasieratik beraren amaierara arte eta ustiatzeari ekin arte.

Proiektuak gauzatzeko arduratzen dena Partzuergoa izanez gero, lana hasi aurretik arauzko aurrekontu-kontsignazioa jasoko du urte bakoitzerako.

LAUGARRENA.

Birjartze plana gauzatzeko lana hasten denean, bi bilera antolatuko dira urtean (sei hiletik behin) planaren bilakaeraren jarraipena kontrastatzeko. Bilera horien ondorioz, egokia izanez gero, berrikuspenak proposatuko dira Plana erabat gauzatzen dela bermatzeko.

BOSGARRENA.

Proiektu bakoitzaren aurrekontu ekonomikoak haxe hartzen du barne: azpiegitura hidraulikoa birjartzea eta okupatutako lursailen akabera egitea, oraingo kalitateari eutsiz, beti ere udal araudiaren espezifikazioak betez. Horregatik, kontuan hartu beharko dira planeamenduaren edo udalaren beste jardura batzuek etorkizunean izan ditzaketen ondorio ekonomikoak, hau da, hasierako aurrekontuan izan ditzaketen ondorio ekonomikoak.

Inbentario horretan tokiko bigarren mailako sarearen Aurrekoari lotuta, aukera baldin badago beste operatzaile batzuekin batera aritzeko eta sinergiak aprobetxatzeko, beste

A tal efecto, de conformidad con lo dispuesto en la Cláusula nº 13 del desarrollo del convenio ("Organización y Planificación de los Trabajos"), el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia hará uso de la competencia a él atribuida en orden a responsabilizarse de la implantación del plan de reposición, es decir, de su licitación, ejecución, dirección de obra y certificación; sin perjuicio de que sea el propio Ayuntamiento el promotor de las obras, en cuyo caso respetará las indicaciones y especificaciones que establezca el Consorcio. En este último caso el Consorcio tendrá participación activa desde la génesis del proyecto hasta su finalización y puesta en explotación.

Para el caso de que el Consorcio sea el responsable de la ejecución de los proyectos, antes de iniciarse la ejecución de los mismos dispondrá de la preceptiva consignación presupuestaria para la anualidad que corresponda.

CUARTA.

Iniciada la ejecución del plan de reposición se organizarán dos reuniones anuales (con carácter semestral) para contrastar el seguimiento del cumplimiento del plan. Como resultado de dichas reuniones, en el caso que corresponda, se propondrán revisiones con la finalidad de garantizar la total ejecución del plan.

QUINTA.

El presupuesto económico de cada uno de los proyectos, incluye la reposición de la infraestructura hidráulica y el acabado de los terrenos ocupados con similar calidad a la actual y siempre según las especificaciones de la normativa municipal. Se deberá tener en cuenta por ello la repercusión económica que las circunstancias futuras del planeamiento o de otras actuaciones municipales pudieran tener sobre las cantidades inicialmente presupuestadas.

Al hilo de lo anterior, y en el caso de que se pudieran aprovechar sinergias con otros operadores para la instalación de otros servicios, con el objeto de minimizar las



zerbitzu batzuk instalatzeko, herritarrentzat sortzen diren eragozpenak murrizteari begira, Partzuergoa hornikuntza sarea birjartzeko lanekin zerikusia duen konpromisoaz soilik arduratuko da; dena dela, horrek ez du inola ere eragozten erabateko lankidetzan aritzea beste sare batzuen arduradunekin; gainera, lankidetzan horren bidez jaitsi egin daiteke Udalak kontsignatu behar zuten diru-kopurua.

molestias a los ciudadanos, el Consorcio se responsabilizará únicamente del compromiso que adquiere en relación a las obras de reposición de la red de abastecimiento, sin que ello impida una absoluta colaboración con los responsables de otras redes y que de esa colaboración resulte un abaratamiento de la cantidad económica que el Ayuntamiento debiera consignar.

Eta ados egonda, bertaratutako bi alderdiek beren onarpena eman diote dokumentu honi, bi ale sinatuz, idazkiaren hasieran adierazitako lekuan eta egunean.

Y encontrándolo conforme, lo otorgan los dos comparecientes, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

GATIKAKO Udaleko Alkate-Presidentea
La Alcaldesa-Presidenta del
Ayuntamiento de GATIKA,



Iz./Fdo.: ONINTZE AMEZAGA BILBAO

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko
Presidentea
El Presidente del
Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia,



Iz./Fdo.: KEPA ODRIOZOLA AZULA



RESUMEN ACTUACIONES PLAN REPOSICIÓN GATIKA			
PROYECTO	DENOMINACIÓN	P.E.M. (€)	P.E.C. (sin iva)
P01	<i>Butroi Auzoa</i>	243.992,80 €	290.351,43 €
P02	<i>Ugarte Auzoa I</i>	117.668,92 €	140.026,01 €
P03	<i>Ugarte Auzoa II</i>	94.680,08 €	112.669,30 €
TOTALES		456.341,80 €	543.046,74 €

Plan de Reposición Gatika

TABLA PRESUPUESTARIA RESUMEN

